



## BEZERO-HARREMANAK

Makina, udalei, jai batzordeei eta kirol taldeei alokatuko diegu, baina ez dira eurak izango kontsumitzaileak. Makina erabiliko dutenak bestelakoak izango dira: gazteak (gehiengoa), umeak helduak... Bezeroekin harremanak mantentzeko, aplikazio eta webgune bat egingo ditugu. Webgunean, bezeroek gure enpresaren berri izango dute: nortzuk garen eta zertan aritzen garen azalduko dugu bertan. Bezeroek bestalde, euren komentarioak usteko aukera izango dute bertan. Horrela, gure proiektua zer iruditzen zaien jakiteko aukera izango dugu, eta zertan hobetu dezakegun baita ere.

### WEB-ORRIA



#### GURE HELBURUAK

*Gaur egun dagoen birziklatze sistema eta motibazioa ez da behar den handia izaten, horregatik, gure helburua plastikoaren birziklapena areagotzea da, eta horrela plastikoaren kontsumo arazoa gelditzea; plastikoaren produkzio amaigabea*



#### ETORKIZUNEAN PENTSATZEN

*Egoera desberdinetan ematen den plastikoa eta zaborraren erabilera masiboaren arazoari konponbidea ematen dio. Egoera hauek ematen diren leku estrategikoetan kokatzea dugu helburu, modu honetan, plastikoaren bilketa*



#### GURE HELBURUAK

*Gaur egun dagoen birziklatze sistema eta motibazioa ez da behar den handia izaten, horregatik, gure helburua plastikoaren birziklapena areagotzea da, eta horrela plastikoaren kontsumo arazoa gelditzea; plastikoaren produkzio amaigabea gubatzeta, eta birziklatutako materialarekin produktu berriak sortzea, produktu birziklatuen salerosketa handitzeko helburuarekin.*



#### ETORKIZUNEAN PENTSATZEN

*Egoera desberdinetan ematen den plastikoa eta zaborraren erabilera masiboaren arazoari konponbidea ematen dio. Egoera hauek ematen diren leku estrategikoetan kokatzea dugu helburu, modu honetan, plastikoaren bilketa eskuragarri uzten dugu edozein pertsonarentzako. Izan ere, makina hauen erabilera sustatzeko nahian, zenbait balio gehigarri eskainiko ditugu.*

*Bezzeroen iradokizunak*

*Idatzi Hemen Zure Iradokizunak....*



Applikazioari dagokionez, dohakoa izango da. Makinen kokalekua agertuko da eta hurbilen daukatena zein den adieraziko zaie erabiltzaileei. Era berean, birziklapena bultzatzeko asmotan sari bat eskaintzea adostu dugu. Saria lortzeko, hamar plastikozko edalontzi birziklatu behar dira gure makinan. Birziklatzen den edalontzi bakoitzeko kode bat agertzen da makinaren goialdeko pantaila digitalean. Bezeroek aplikazioan kode horiek sartzen joan behar dira, eta hamar kode biltzea lortzen dutenean lortuko dute saria. Saria, Eroski supermerkatuetan deskontu bat da eta Eroskiko arduradun den langile bati mugikorreko hamar kodeak erakutsiko dizkio bezeroak. Langileak, hamarrak daudela ziurtatzerakoan, saria ( %25-eko deskontua 100€ baino gehiagoko erosketetan) emango dio bezeroari.